

# HERRI ITUNAREKIN DUGUN KONPROMISOA DEFINITZEKO IBILBIDEA



## Nondik hasiko gara?

Gogoratu Euskadiko emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitza eta berdintasunaren aldeko Herri Ituna honako hau dela:

- Zuenaren moduko Euskadiko erakundeek bultzatzen dituzten emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko **konpromiso zehatz eta neurgarrien** batura.
- Elkarrizketa ariketa bat, **jakintza, esperientzia, ibilbide eta begirada desberdinak eta askotarikoak** biltzen dituena.
- Berdintasunean aurrera egiteko erantzukizuna argi erakusten duten erakundeek, ikastetxeek, elkarrizketarako espazioek, enpresek, sindikatuek, elkarteek, GKEek eta talde feministek osatutako **komunitatea**.
- Herritarren parte-hartze arduratsuaren bidez, eta gardentasunaren eta kontu-ematean oinarrituta, **Euskadik emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorrarekin duen konpromisoa hedatzeko eta aktibatzeke ekimen** bat.



### Lantalde bat eratzea

Lehen urratsa lantalde bat sortzea da. Gomendagarria da, gehienez, 12 eta 15 pertsona artekoa izatea. Zuen erakundeak dagoeneko berdintasuna lantzeko gune bat badu, horrek itunaren lantaldearen funtzioak bete ditzake.



## Zer funtzio izango lituzke talde horrek?

- Elkarrizketa eta hausnarketa erraztea.
- Berdintasunaren bidean aurrera egiteko zuon erakundeak egin ditzakeen ekintza zehatzak identifikatzea.
- Lortzen diren ikaskuntzak eta konpromisoak erakundearen ikusaraztea eta erakundeari.



## Nor izan daiteke taldeko kide?

- Prozesuan parte hartu nahi duten eta aurreikusitako lanarekin konpromisoa hartzen duten pertsonak.
- Askotariko jakintzak, ibilbideak, ikuspuntuak, esparruak edo errealitateak ordezkatzeko dituzten pertsonak.



## Zenbat bilera egin behar ditugu?

Prozesuak gutxienez ondoz ondoko 4 une behar ditu:

- **Lehen unea:** Lantaldea sortzea.
- **Bigarren unea:** Testuingurua ezagutzea. Emakumeari Buruzko Munduko IV. Konferentzia, Generation Equality ekimena, Herri Itunera nola iristen den jakiteko.
- **Hirugarren unea:** Herri Itunaren jarduera eremuetatik abiatuta, zuen erakundearen berrikustea berdintasunerantz aurrera nola egin identifikatzeko.
- **Laugarren unea:** Berdintasuneranzko aldaketa bizkortzeko eta horretan laguntzeko zuon erakundearen konpromisoak definitzea, haien bidez Herri Itunarekin bat egiteko.
- **Bosgarren unea:** Zuen konpromisoa partekatzea eta zabaltzea, Herri Itunaren komunitatearen partaide gisa.